# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

### 3824

380/1994 DEKRETUA,urriaren 4koa, joko-aretoen eta jolas-aretoen araudia onartzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko joko-iharduera Jokoa arautzeari buruzko azaroaren 8ko 4/1991 Legea onartzean arautu zen orokorrean, arau-eremu orokorra finkatuz eta jokoaren azpialor bakoitzeko arauen araudi bidezko garapena aurrikusiz.

Araudi hau aipatu Legean agertzen diren aginduak betez ematen da, iharduera honetan jokatzen duten osagaiak osorik arautuz: izan ere, bertan finkatzen dira baimenen titularrek bete beharreko baldintzak, baita aretoek bete beharrekoak ere, administrazioak egokitzat jo ditzan.

Eginkizun honetan gidari izan den helburuetariko bat baimenen titularrak profesionalagotzeko neurriak eta aretoetan segurtasuna bermatzeko neurriak hartzeko helburua izan da, joko- eta jolas–aretoak duintzeko ahalegin handia eginez.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Euskal Joko Batzordeak eginiko txostena ikusita eta Jaurlaritza Kontseiluak 1994ko urriaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Joko-aretoen eta jolas-aretoen araudia onartzen da, ondoren jasota datorrena, baita dekretu honen eremupeko establezimenduek bete beharreko baldintza teknikoei buruzko eraskina ere.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen da dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Herrizaingo sailburuak du dekretu honen garapenean eman beharreko xedapenak emateko aginpidea, eta bereziki joko-aretoetan makinak jartzeko baldintzei eta ezaugarriei buruzkoak.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 3824

DECRETO.380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

La regulación general de la actividad del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco se produjo como consecuencia de la aprobación de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre Reguladora del Juego, fijando un marco general normativo y previendo un desarrollo reglamentario de cada uno de los subsectores del juego.

El presente Reglamento se dicta al amparo de las prescripciones de la citada Ley, haciendo una regulación acabada de los elementos intervinientes en esta actividad, cuales son la fijación de los requisitos de los titulares de las autorizaciones y, asimismo, los requisitos a cumplir por los locales para que sean considerados aptos desde el punto de vista administrativo.

Uno de los objetivos que ha guiado este cometido ha sido la fijación de medidas que promuevan la profesionalización de los titulares de autorizaciones y las garantías de seguridad de los locales, incidiendo sobremanera en el intento de dignificar los Salones de Juego y Recreativos.

Por cuanto antecede, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 4 de octubre de 1994,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos cuyo texto se inserta a continuación, así como el Anexo sobre condiciones técnicas de los establecimientos comprendidos en el ámbito de este Decreto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo previsto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo y ejecución del presente Decreto, y en particular las relativas a la modificación de las características y condiciones de instalación de las máquinas en los Salones de Juego.

*Bigarrena.–* Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko urriak 4.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

## ERASKINA

## JOKO-ARETOEN ETA JOLAS-ARETOEN ARAUDIA

### I. ATALBURUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.–* Xedea eta ezarpen eremua.

Araudi honen xedea Euskal Autonomi Elkarteko joko-aretoak eta jolas-aretoak jarri eta irekitzeko arauak eman eta areto horien titularrek Joko Errolda Nagusian izena emateko baldintzak ezartzea da, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak ezarritakoaren arabera.

*2. atala.–* Aretoen sailkapena.

1.– Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 14. eta 15. atalekin bat etorriz, eta lege araubidearen arabera, aretoak bitan banatzen dira: joko-aretoak eta jolas-aretoak.

2.– Joko-aretoak dira, araudi honetan jasotako baldintza teknikoak betetzeaz gain, «C» motako makinak izan ezik, saridun jolas-makinak eta ez besterik ustiatzen dituztenak.

Euskal Autonomi Elkarteko joko-areto guztietan ezingo da jarri «B» motako 1.000 makina baino gehiago.

3.– Jolas-aretoak dira, araudi honetan jasotako baldintza teknikoak betetzeaz gain, jolas-makinak edo «A» motako makinak eta ez besterik ustiatzen dituztenak.

4.– Kirol-makinak, bilarrak edota joko-makina ez diren beste antzeko batzuk ere jar daitezke, aretoak duen harmenaren arabera.

*3. atala.–* Baimendutako beste toki batzuk.

1.– Aisirako tokietan «A» motako 5 makina jar daitezke gehien jota aldi baterako, esate baterako akanpalekuetan, jolasparkeetan, barraka-tokietan edo antzekoetan.

2.– Horretarako prestaturik dauden tokietan jarri beharko dira makinok eta horiek ustiatzeko Joko eta

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

## ANEXO

## REGLAMENTO DE SALONES DE JUEGO Y SALONES RECREATIVOS

### CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto y ámbito de aplicación.

Es objeto del presente Reglamento el establecimiento de las normas reguladoras de la instalación y funcionamiento de los locales destinados a Salones de Juego y Salones Recreativos, así como las condiciones de inscripción en el Registro Central de Juego de los titulares de aquellos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

*Artículo 2.–* Clasificación de los Salones.

1.– De acuerdo con los artículos 14 y 15 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, y a efectos de su régimen jurídico, los Salones se clasifican en Salones de Juego y Salones Recreativos.

2.– Son Salones de Juego aquellos locales que, cumpliendo los requisitos técnicos recogidos en el presente Reglamento, se destinan especificamente a la explotación de máquinas recreativas con premio, con excepción de las máquinas de tipo «C».

El número máximo de máquinas de tipo «B» a instalar en la totalidad de los Salones de Juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco no podrá ser superior a 1.000.

3.– Son Salones Recreativos aquellos establecimientos que, cumpliendo los requisitos técnicos especificados en el presente Reglamento, se destinan exclusivamente a la explotación de maquinas recreativas o de tipo «A».

4.– En estos locales se podrán instalar máquinas deportivas, billares u otras similares no clasificadas como máquinas de juego, en función del aforo del local.

*Artículo 3.–* Otros lugares autorizados.

1.– Se podrá asimismo instalar con carácter temporal y en número máximo de 5, máquinas de tipo «A» en lugares de recreo, entendiendo como tales los campings, parques de atracciones, recintos feriales o similares.

2.– Dichas máquinas deberán ser instaladas en espacios habilitados al efecto y su explotación precisará

Ikuskizun Zuzendaritzaren berarizko baimena beharko da.

II. ATALBURUA

BAIMENAK ESKURATZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

*4. atala.*– joko- eta jolas-aretoen enpresa titularrek bete beharreko baldintzak.

1.– Joko Errolda Nagusiko Areto Enpresen Erroldan pertsona fisikoek eta zuzenbidez onartutako elkarte izaerako zuzenbidezko pertsonek eman dezakete izena, ondorengo ataletan ezarritako baldintzak betez eta prozedurari jarraituz.

2.– Euskal Autonomi Elkarteko joko-aretoen eta jolas-aretoen ustiaketa eta kudeaketarako ezinbestekoa izango da erroldaratze hori. Horrez gain, aretoak ustiatu ahal izateko, areto bakoitza jarri eta irekitzeko berarizko baimena beharko da, araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

*5. atala.*– Elkarte izaera duten Areto-enpresak.

1.– Aretoen titular diren elkarte izaerako enpresek kasuan kasuko legerian ezartzen den gutxieneko kapital soziala beharko dute izan. Kapitala akzio eta partizipazio izendunek osatuko dute, eta horiek eskualdatu ahal izateko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aldez aurreko baimena beharko da, oso-osorik banatuta eta ordainduta egoteaz gain.

2.– Araudi honetan aipatzen diren joko-enpresetan atzerriko zenbateko kapitalak parte har dezakeen finkatzeko berarizko arauetan ezartzen dena hartuko da kontutan.

*6. atala.*– Baimenak eskuratzeko inhabilitazioak.

Ezingo dira izan enpresa areto-ustiatzaileen titular Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 19. ataleko 4 eta 5 zenbakietan aipatzen den kasuren batean dauden pertsona fisikoak, ezta horien partaidetzaz eratutako enpresak ere.

*7. atala.*– Joko-aretoen eta jolas-aretoen enpresa titularrek izen-emateko araubidea.

1.– Areto Enpresen Erroldan izen-emateko asmoa duten pertsona fisiko edo zuzenbidezkoek eskabidea aurkeztu beharko dute, Herri–Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. atalean aurrikusitakoaren arabera, honako agiri-sortarekin batera:

a) Eskegilearen nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia eta, elkarteen kasuan, administratzaile, kontseilari eta bazkideena.

b) Elkartearen eraketa agiriaren edo estatutuen kopia erkatua edo ziurtagiria.

autorización específica de la Dirección de Juego y Espectáculos.

CAPITULO II

REQUISITOS Y PROCEDIMIENTO DE AUTORIZACIÓN

*Artículo 4.*– Requisitos de Empresas titulares de Salones de Juego y Salones Recreativos.

1.– Podrán ser inscritos en el Registro de Empresas de Salones del Registro Central del Juego las personas físicas y las personas jurídicas con formas societarias admitidas en Derecho, conforme al procedimiento y con los requisitos establecidos en los artículos siguientes.

2.– La inscripción en dicho registro será condición inexcusable para la gestión y explotación de Salones de Juego y Salones Recreativos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Igualmente se precisará de una autorización individualizada de instalación y funcionamiento para la explotación de cada Salón, conforme el procedimiento establecido en el presente Reglamento.

*Artículo 5.*– Empresas de Salones con forma societaria.

1.– El capital social mínimo de las Empresas titulares de Salones con forma societaria será el que resulte de su legislación específica. El mismo se constituirá en acciones o participaciones nominativas, cuya transmisión deberá ser previamente autorizada por la Dirección de Juego y Espectáculos, y deberá estar totalmente suscrito y desembolsado.

2.– Para determinar la participación de capital extranjero en las Empresas de juego a que se refiere este Reglamento se estará a lo que disponga la normativa específica.

*Artículo 6.*– Inhabilitaciones para ostentar autorizaciones.

No podrán ser titulares de Empresas explotadoras de Salones las personas físicas que se encuentren en alguno de los supuestos previstos en los números 4 y 5 del artículo 19 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, ni las sociedades en cuyo capital participen dichas personas.

*Artículo 7.*– Régimen de inscripción de Empresas titulares de Salones de Juego y Salones Recreativos.

1.– Las personas físicas o jurídicas que pretendan su inscripción en el Registro de Empresas de Salones dirigirán escrito de solicitud conforme a lo previsto en el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, aportando la siguiente documentación:

a) Fotocopia del documento nacional de identidad o pasaporte del solicitante y, tratándose de sociedades, el de los administradores, consejeros y socios.

b) Copia compulsada o testimonio de la escritura de constitución de la sociedad y de sus estatutos.

c) Aginpidedun organoak luzatutako elkartearen ziurtagiria, bazkideen zerrenda, partizipazio kuotak eta kapital soziala zehaztuz.

d) Elkartea Merkatal Erroldan izen-ematearen ziurtagiria, gehienez eskaera egin baino hiru hilabete lehenago.

e) Administrazio aginpidedunak luzatutako ziurtagiria, zenbaki honetako a) idazatian aipatzen diren pertsonen aurrekari penalei buruzkoa.

f) a) idazatian aipatzen diren pertsonen aitorpena, araudi honen 6. atalean jasotako inhabilitazio kasuetan ez daudela adieraziz.

g) Eskegileak ihardunerako dituen giza-baliabide eta baliabide tekniko eta materialei buruzko txostena.

2.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, behar diren egiaztapenak egin ondoren eta aurkeztutako datu eta agiriak aztertu ondoren, izen-ematearen bideragarritasuna jakinaraziko du txosten baten bidez. Txostena ezezkoa bada, administrazio errekurtsoa jarri ahal izango da.

3.– Eskaerari baiezkoa ematearen alde agertzen bada, doakionari jakinaraziko zaio eta horrek, bi hilabeteko gehienezko epean, fidantza ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, araudi honetako 13. atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

4.– Aurreko idazatian aipatutako epean agiri-sorta hori aurkezten ez bada, doakionari jakinaraziko zaio hiru hilabeteko epean espedientea iraungita geldituko dela, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen 30/1992 Legearen 92. atalean ezarritakoaren arabera.

5.– 3. idazatian aipatutako agiriak aurkeztu eta gero, Areto Enpresen Erroldan izena emango da.

*8. atala.*– Joko-aretoak eta jolas-aretoak jarri eta irekitzeko baimena eskuratzeko araubidea.

1.– Joko-aretoak eta jolas-aretoak kudeatu eta ustiatzeko beharrezkoa izango da aurreko ataleko izen-ematea.

2.– Jolas-aretoa edo joko-aretoa jartzeko asmoa duten pertsona fisiko edo zuzenbidezkoek idatzia zuzendu beharko diote Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. atalean aurrikusitakoaren arabera, honako agiri-sortarekin batera:

a) Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimena ematen dion ebazpenaren kopia edo baimendutako izen-ematearen zenbakiaren aipamena. Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimena eta joko-aretoa edo jolas-aretoa jarri eta irekitzeko baimena batera eskatzen badira, araudi honetako 7. atalean ezarritakoaren arabera egin dela egiaztatu beharko da.

c) Certificación de la sociedad, emitida por órgano competente, de la relación de socios y cuotas de participación, así como la cifra de capital social.

d) Certificado de la inscripción de la sociedad en el Registro Mercantil, con fecha máxima de 3 meses anterior a la de la solicitud.

e) Certificado emitido por la Administración competente relativo a los antecedentes penales de las personas mencionadas en el apartado a) de este número.

f) Declaración de las personas a que se refiere el apartado a) de no estar incursos en los supuestos de inhabilitación establecidos en el artículo 6 del presente Reglamento.

g) Memoria descriptiva de los medios humanos, técnicos y materiales de que disponga el solicitante para el ejercicio de la actividad.

2.– La Dirección de Juego y Espectáculos, previas las comprobaciones que estime necesario, y valorando la datos y documentos aportados, informará sobre la viabilidad de la inscripción, pudiendo interponerse, en caso de informe negativo, el pertinente recurso administrativo.

3.– En caso de que la solicitud fuera informada favorablemente, se notificará dicha circunstancia al interesado, quien, en el plazo máximo de dos meses, deberá aportar justificante del depósito de la fianza conforme lo dispuesto en el artículo 13 de este Reglamento.

4.– Si no se presentase la documentación en el plazo a que se refiere el apartado anterior, se comunicará al interesado que, transcurridos tres meses, se producirá la caducidad del expediente, en virtud de lo dispuesto en el artículo 92 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Una vez presentados los documentos señalados en el apartado 3 se procederá, en su caso, a la inscripción en el Registro de Empresas de Salones.

*Artículo 8.*– Procedimiento para la autorización de instalación y funcionamiento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

1.– Para la gestión y explotación de Salones de Juego y Salones Recreativos es preciso haber obtenido la inscripción a que se refiere el artículo anterior.

2.– Las personas físicas o jurídicas que pretendan la instalación de un Salón de Juego o de un Salón Recreativo, dirigirán escrito a la Dirección de Juego y Espectáculos conforme a lo previsto en el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, aportando la siguiente documentación:

a) Copia de la resolución de autorización en el Registro de Empresas de Salones o mención del número de inscripción autorizado. En el supuesto de que se solicite conjuntamente la inscripción en el Registro de Empresas de Salones y la autorización de instalación y funcionamiento de un Salón de Juego o Recreativo, deberá justificarse que se ha procedido de acuerdo con lo dispuesto en el artículo. 7 de este Reglamento.

b) Teknikari gaituak egindako aretoko lan eta instalazioei buruzko oinarrizko proiektua, dagokion Lanbide Elkargoaren ikusonetsiaz. Honako edukia izango du gutxienez:

– Aretoa jarri nahi den lokalaren planoa, 1/1000 eskalan, joko-aretoak, komunak eta sarrerak, biltegiak edo bulegoak hartuko duten tokia azalduz.

– Suteen aurkako baliabideak eta ebakuaziorakoak non kokatuta dauden azaltzeko planoa.

– Araudi honen eraskinean aipatzen diren Baldintza Teknikoak betetzen direla adierazten duen Txostena.

3.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, aurkeztu zaizkion agiriak aztertu eta behar diren datuak eskatu eta egiaztapenak egin ondoren, baimena ematearen bideragarritasuna jakinaraziko du.

4.– Eskaerari baiezkoa ematearen alde agertzen bada, doakionari jakinaraziko zaio eta horrek, sei hilabeteko gehienezko epean, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Dagokion Udalak luzatutako agiria, joko-aretoa edo jolas-aretoa jarri nahi den lokala horretarako egokia dela egiaztatzeko dena.

b) Teknikari gaituak luzatutako ziurtagiria. Bertan, atal honetako 2 puntuko b) zatian aipatzen den proiektuak azkenik burutzen denarekin duen zerikusia agertuko da, baita hartu badira, organo aginpidedunak eskatuta hartu diren neurri zuzentzaileak ere.

c) Kasuan kasuko fidantza utzi izanaren ziurtagiria, araudi honen 13. atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

d) Lokala erabiltzeko moduan dagoela adierazten duen ziurtagiria.

e) Baimenaren titularra eta aretoko langileak gizarte segurantza sisteman alta emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

*9. atala.*– Baimena ematea.

1.– Aurreko idazatian aipatutako epean agiri-sorta hori aurkezten ez bada, doakionari jakinaraziko zaio hiru hilabeteko epean espedientea iraungita geldituko dela, Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbidearen 30/1992 Legearen 92. atalean ezarritakoaren arabera.

2.– Aurreko ataleko 4 idazatian azaltzen diren agiriak aurkeztu ondoren, aretoa jarri eta irekitzeko baimena emango da. Bertan, baimendutako gehienezko aforoa eta jarriko den joko-makinen gehienezko kopurua jasoko dira.

3.– Baimena eman dela ulertuko da, indarrean dauden arauen arabera eska daitezkeen udal-lizentzien kaltetan gabe.

*10. atala.*– Bideragarritasuna aztertzeko aurre-kontsulta.

b) Proyecto básico de las obras e instalaciones del local redactado por técnico competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente. El contenido mínimo del mismo será el siguiente:

– Plano del local donde se pretenda instalar el Salón, a escala 1/1000, con mención de las superficies destinadas a sala de juegos, servicios y, en su caso, otras dependencias como vestíbulos, almacén u oficinas.

– Plano indicativo de la ubicación de los medios de protección contra incendios y evacuación.

– Memoria en la que se hará constar el cumplimiento de las Condiciones Técnicas a que se refiere el Anexo a este Reglamento.

3.– La Dirección de Juego y Espectáculos, valorando la documentación aportada, recabados los datos y efectuadas las comprobaciones que estime necesarias, informará sobre la viabilidad de la autorización.

4.– Si la solicitud fuera informada en sentido favorable, se notificará dicha circunstancia al interesado, quien, en el plazo máximo de seis meses, deberá aportar la siguiente documentación:

a) Documento, emitido por el Ayuntamiento correspondiente, relativo a la posibilidad de ejercer la actividad en el local en que se pretenda instalar el Salón de Juego o Recreativo.

b) Certificado emitido por técnico competente en el que constará la correspondencia entre el proyecto a que se refiere el número 2 letra b) de este artículo y la ejecución final de aquél, con indicación, en su caso, de las medidas correctoras adoptadas a instancia del órgano competente.

c) Justificante del depósito de la fianza en la cuantía que corresponda, conforme a lo dispuesto en el artículo 13 de este Reglamento.

d) Documento acreditativo de la disponibilidad del local.

e) Justificante del alta del titular de la autorización y, en su caso, de los empleados, en el régimen correspondiente de la seguridad social.

*Artículo 9.*– Otorgamiento de la autorización.

1.– Si no se presentase la documentación en el plazo a que se refiere el apartado anterior, se comunicará al interesado que, transcurridos tres meses, se producirá la caducidad del expediente, en virtud de lo dispuesto en el artículo 92 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Una vez presentados los documentos referidos en el apartado 4 del artículo anterior, se procederá a otorgar la autorización de instalación y funcionamiento del Salón, en la que deberá constar, al menos, el aforo máximo autorizado y el número máximo de máquinas de juego a instalar.

3.– Esta autorización se entenderá otorgada sin perjuicio de las licencias municipales exigibles según la normativa vigente.

*Artículo 10.*– Consulta previa de viabilidad.

1.– Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan gabe, aretoa ustiatu nahi duen orok egin diezaioke Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari aretoa jarri eta ireki ahal izateko baimena eskuratzeko aukerarik duen jakiteko kontsulta.

2.– Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) eskegilearen nortasun agiri nazionalaren edo baliokidearen kopia.

b) araudi honen 8. ataleko 2. zenbakiko b) idazatian aipatutakoa.

3.– Aurkeztu zaizkion agiriak ikusi ondoren, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimena eskuratzeko aukera baduela edo ez duela erantzungo dio hiru hilabeteko gehienezko epean. Ukatuz gero, doakionari adierazi egin beharko zaio zeintzu diren baimena lortu ahal izateko aretoan egin beharreko aldaketak.

4.– Kontsultari baiezko erantzuna ematen bazaio eta doakionak baimen espedienteari ekin, ez du atal honetako 2 zenbakian aipatzen den agiririk aurkeztu beharko. Baiezko erantzuna neurri zuzentzaileak hartzeko baldintzapean ematen bada, doakionak, espedienteak dirauen artean, neurri horiek hartu izana egiaztatu beharko du. Idazati honetan xedatutakoak indarra izan dezan, doakionak bideragarritasuna aztertzeko aurrekontsultaren erantzuna jasotzen duenetik gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko du aretoa jartzeko baimen-eskabidea.

5.– Bideragarritasuna aztertzeko eginiko aurre-kontsultari emandako erantzuna baiezkoa izatea ezingo da inola ere aretoa ustiatzeko administrazioaren baimentzat hartu. Beti izango da derrigorrezkoa araudi honen 8. atalean ezarritako prozeduraren bidez eskuratzeko baimena.

*11. atala.*– Areto Enpresen Erroldako izen-emateen eta aretoak jarri eta irekitzeko baimenen iraupena, balio galtzea, iraungipena eta eskualdatzea.

1.– Areto Enpresen Erroldako izen-emateek eta aretoak jarri eta irekitzeko baimenek hiru urteko iraupena izango dute. Hala ere berriztatu daitezke, egiten diren unean indarrean dagoen arauteriaren arabera.

2.– Izen-emateak deuseztatuta gelditukoo dira eta baimenek indarra gal dezakete baldin eta:

a) Doakionak uko egiten badie, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari bidalitako idatziz.

b) Enpresa borondatez edo legez desegiten bada. Enpresaren titularra edo bazkide edo partaideetakoren bat hiltzen bada, zuzenbide pribatuko oinordetza arloko arauek finkatzen dituzten izapideak burutu ondoren, oinordeak beharrezko administrazio baimenak eskatu beharko dizkio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari.

c) Baimenaren iraupen epea igarotzean, administrazioak aurrez eskatu arren, berriztatzeko eskaerarik egiten ez bada.

1.– No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, cualquier persona interesada en la explotación de un Salón podrá instar de la Dirección de Juego y Espectáculos la consulta sobre la posibilidad de obtener autorización para su instalación y funcionamiento.

2.– A tal efecto deberá adjuntar la siguiente documentación:

a) Copia del documento nacional de identidad o similar del peticionario.

b) La referida en el apartado b), número 2 del artículo 8 del presente Reglamento.

3.– A la vista de la documentación aportada, la Dirección de Juego y Espectáculos contestará, en el plazo máximo de 3 meses, en sentido favorable o contrario a la posibilidad de autorización, pudiendo, en este último caso, señalar al interesado las medidas correctoras a adoptar en el local a efectos de la autorización.

4.– En el supuesto de que la respuesta a la consulta fuera favorable, si el interesado inicia expediente de autorización no estará obligado a presentar la documentación a que se refiere el número 2 de este artículo. Si el informe fuera condicionado a la adopción de medidas correctoras, el interesado, en el curso del expediente, deberá justificar la realización de aquellas. Para que surta efecto lo dispuesto en este apartado la solicitud de autorización de instalación de Salón deberá realizarse en un plazo máximo de 3 meses desde el recibo por el interesado de la contestación a la consulta previa de viabilidad.

5.– La respuesta a la consulta previa de viabilidad no supondrá en ningún caso autorización administrativa para la explotación del Salón objeto de la consulta, siendo preciso, en todo caso, obtener la autorización a través del procedimiento establecido en el artículo 8 de este Reglamento.

*Artículo 11.*– Vigencia, extinción, caducidad y transmisibilidad de las inscripciones en el Registro de Empresa de Salones y de las autorizaciones de instalación y funcionamiento.

1.– Las inscripciones en el Registro de Empresas de Salones y las autorizaciones de instalación y funcionamiento de Salones tendrán una duración de 3 años, renovables de acuerdo con la normativa vigente al momento de realizarse.

2.– Podrá cancelarse la inscripción y las autorizaciones a que se refiere el punto anterior en los siguientes casos:

a) Por renuncia del interesado manifestada por escrito a la Dirección de Juego y Espectáculos.

b) Por disolución voluntaria o legal de la empresa. En caso de fallecimiento del titular o de alguno de los socios o partícipes de la empresa, una vez realizados los trámites conforme a las normas de derecho privado en materia de sucesiones, el causahabiente deberá solicitar las autorizaciones administrativas preceptivas de la Dirección de Juego y Espectáculos.

c) Por el transcurso del plazo de validez de la autorización sin haber instado la renovación, previo requerimiento administrativo.

d) Indarrean dauden arauen arabera irekitako administrazio prozeduran baimena kentzeko erabakia hartzen bada. Hori honako arrazoiren baten oinarritu beharko da:

– idantzaren zenbatekoa murriztu denean, 13. atalean finkatutako epean berriz fidantzarik jarri ez delako.

– Baimenak indarrean dirauen artean, baimena eman zen garaiko baldintzaren bat, titularrari edo aretoari buruzko baldintzaren bat alegia, galdu delako.

– Baimenen titularrek edo horien bazkide edo administratzaileek araudi honetako 5 eta 7 ataletako aginduak betetzeari uzten dietelako.

e) Horiez gain, aretoetarako baimenak baliorik gabe geldituko dira, edozein arrazoi dela eta, baimenaren titularraren alde Areto Enpresen Erroldan egindako izen-emateek indarra galtzen badute.

3.– Areto Enpresen Erroldan izen-emateko baimenak eskualdaezinak dira bizien artean, atal honetako 2.b) idazatian ezarritakoaren kaltetan gabe.

4.– Aretoak jarri eta irekitzeko baimenak eskualdatu ahal izateko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren administrazio-baimena behar da aurrez. Eskualdaketa Areto Enpresen Erroldan izen-emandako pertsona fisiko eta zuzenbidezkoen artean bakarrik egin ahal izango da.

5.– Lokaletan gelen luze-zabaleran eragina duen aldaketaren bat egiteko, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimena beharko da aldez aurretik.

*12. atala.*– Izen-emateak eta baimenak berriztatzea.

1.– Araudi honetan aipatzen diren baimenak berriztatzeko eskaera baimenak indarra galtzen duenetik kontatzen hasi eta gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko zaio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari.

2.– Areto Enpresen Erroldan egindako izen-emateak berriztatzeko, doakionak araudi honen 7 ataleko 1 zenbakiko a), e) eta f) idazatietan baimenaren titular diren pertsona fisikoen inguruko edo, zuzenbidezko pertsonen kasuan, administratzaile, kontseilari eta bazkideen inguruko agiri-sorta aurkeztu beharko du.

3.– Aurkeztutako agiriak eta aurreko zenbakietan ezarritako baldintzak betetzen diren aztertu ondoren eta egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak erabakiko du bidezkoa den ala ez berriztatze hori. Erabaki hori hartzeko epean ezer esaten ez badu, baiezkoa dela ulertuko da.

d) Por resolución de revocación adoptada en procedimiento administrativo instruido de acuerdo con la normativa en vigor, en base a alguna de las siguientes causas:

– La no reposición de fianzas en el plazo establecido en el artículo 13, cuando hubiera disminuido su cuantía.

– Cuando durante el periodo de vigencia de las autorizaciones se pierdan todos o algunos de los requisitos que determinaron su otorgamiento, relativas a la persona titular o al local.

– Cuando se dejasen de cumplir por los titulares de las autorizaciones, sus socios o administradores, las prescripciones de los artículos 5 y 7 de este Reglamento.

e) Asimismo, las autorizaciones de Salón quedarán sin efecto cuando, por cualquier causa, se extinga la inscripción del titular de aquellas en el Registro de Empresas de Salones.

3.– Las autorizaciones de inscripción en el Registro de Empresas de Salones son intransmisibles ínter vivos, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2.b) del presente artículo.

4.– La transmisión de autorizaciones de instalación y funcionamiento de Salones precisan de previa autorización administrativa de la Dirección de Juego y Espectáculos. La transmisión sólo operará entre personas físicas o jurídicas inscritas en el Registro de Empresas de Salones.

5.– Las modificaciones del local que impliquen una modificación de la superficie útil de sus dependencias, deberán ser previamente autorizadas por la Dirección de Juego y Espectáculos.

*Artículo 12.*– Renovación de las inscripciones y autorizaciones.

1.– La solicitud de renovación de las autorizaciones a que se refiere el presente Reglamento se presentará en la Dirección de Juego y Espectáculos con una antelación de al menos dos meses sobre la fecha de expiración de la autorización.

2.– Para la renovación de las inscripciones en el Registro de Empresas de Salones, el interesado deberá aportar la documentación prevista en los apartados a), e) y f) del número 1 del artículo 7 del presente Reglamento respecto a las personas físicas titulares de la autorización y, en el caso de personas jurídicas, de los administradores, consejeros y socios.

